

KONTROL MOZIOA

Babesleek egiten duten hizkuntza-irizpideen erabilera direla-eta

Naiara Sampedro Perezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Batzordean Kiroletako eta Gazteriako Martin Ibabe jaunari zuzenduriko interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urriaren 9an, posta elektronikoaren bidez, Freestyle delako ikuskizunera joateko gonbidapen ofiziala, Eneko Goia alkateak sinatuta jaso genuen. Eta aipatutako jardueran, Donostia Kirola babesle gisa azaltzen zen. Donostia Kirolaren aipamena akatsa ez delakoan gaude, baizik eta udalaren esku hartzea egon zela. Aipa karteletako azalpen guztiak gazteleraz zeuden “urria” hitza izan ezik, eta, beraz, akatsa larria iruditzen zaigu, berau hizkuntz irizpideak urratzea baita, jakin badakigunean zein garrantzizkoa den haur eta gazteei zuzentzen zaizkien jardueretan euskararen erabilera aktiboa zein pasiboa erabiltzea.

Udal Gobernuak behin eta berriro euskararen erabileraren aldeko eta bere babesarekiko adierazpenak egin ditu baino ahozko konpromiso hori balekotzat har daitekeen arren, praktikan ez da horrela. Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari udaleko administrazioaren edozein ataletik igarotzen diren ekimenetan hizkuntza irizpideak bermatzea. Modu berean, Udala babesle gisa izan edo eta Udaletik at egiten diren ekimenetan hizkuntza irizpideak bermatu daitezen bideratu beharreko gomendioak jakinarazi ditzan eta Donostiako bi hizkuntza ofizialetan jarduteko eskubidea urratua izan ez dadin.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Naiara Sampedro Perez
EHBildu udal taldeko zinegotzia